

HIRU LANPOSTU ALDI BATERAKO KONTRATATZEKO DEIALDIA, LAKUNTZAKO GAZTETXOKOAN HEZKUNTZA ETA AISIALDIKO JARDUERAK EGITEKO ETA LAN-POLTSA OSATZEKO

1. XEDEA

- a. Deialdi honen xedea da **3 pertsona** aldi baterako kontratatzea eta izangaien zerrenda bat osatzea GAZTETXOKOn 11 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako hezkuntza- eta aisialdi-jarduerak egiteko. Lakuntzako Udalaren ekimena da, eta sortzen diren aldi baterako beharrei erantzutea du helburu.

Lan-poltsa bat osatuko da ezarritako baldintzak bete eta egindako hautapen-probak gainditu dituzten izangaiekin. Zerrenda hautapen-probetan ateratako puntuazioaren hurrenkerari jarraikiz osatuko da.

Zerrenda hori erabiliko da urtean GAZTETXOKOn programatzen diren hezkuntza- eta aisialdi-jarduerak gauzatzeko, baita honako hauetarako ere: laneko bajak aldi baterako betetzeko; oporrak, baimenak eta lizentziak egiteko eta beharra dagoenean, zerbitzua indartzeko. Horrelako kasuetan, kontratazioa zer lanpostutarako egiten den horretara egokituko da kontratua.

- b. Oro har, kontratua urritik maiatzera arte luzatuko da, biak barne.
- c. Begiraleek txandaka lan egingo dute, bikoteka, eta bikoteak aldatu egingo dira asteburuetan.

Lanaldia partziala izango da eta zerbitzuaren beharretara egokituko da. Administrazio organo eskudunek noiznahi aldatzen ahalko dute, zerbitzuaren beharren arabera.

- Larunbatetan: 16:00etatik 20:00etara.
- Igandeetan: 16:00etatik 20:00etara.

- d. Lanpostuak C mailako ordainsariak izango ditu, Ordainsariei buruzko behin-behineko Erregelamenduan ezarritakoaren arabera (maila horretako eginkizunak dituelako).
- e. Lanpostuak euskarazko nahitaezko hizkuntza eskakizun hau du: C1 (ahozkoa).

2. IZANGAIEK BETE BEHARREKO BALDINTZAK



Deialdi honetan onartuak izateko, izangaiek baldintza hauek bete beharko dituzte eskabideak aurkezteko epea bukatzen den egunean:

- a. Espainiako nazionalitatea izatea.
- b. 18 urte beteak izatea eta erretiroa nahitaez hartzeko gehieneko adina ez gainditzea.
- c. Batxilergo titulua edo Lanbide Heziketako bigarren mailakoa izatea.
- d. Langabeen egotea edo lana hobetzeko inskribaturik egotea.
- e. Lanpostuaren eginkizunak betetzeko behar diren gaitasun fisikoak eta psikikoak izatea.
- f. Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean sarturik ez egotea. Hautatutako pertsonen baimena ematen diote Lakuntzako Udalari Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean sarturik ote dauden begiratzeko. Izan ere, adingabeekin lanbide, ogibide edo jarduerak egin nahi dituen orok ezin da inolaz ere Sexu Delitugileen Erregistro Zentralean inskribaturik egon, hala ezartzen baitu Haurrak babesteari buruzko uztailaren 28ko 26/2015 Legeak aldatutako urtarrilaren 15eko 1/1996 Legeak, bai eta Boluntarioei buruzko urriaren 14ko 45/2015 Legeak ere.
- g. Euskaraz jakitea (C1 ahozkoa). Euskara maila egiaztatzeko organo eskudun batek emandako titulua aurkeztu beharko da eta titulurik eduki ezean, izangaiek proba bat gainditu beharko du hizkuntz gaitasun nahikoa duela frogatzeko, ekainaren 15eko 55/2009 Foru Dekretuaren 4 artikuluan ezarritakoari jarraikiz.

3. LANBIDE EGINKIZUN ETA ESKUMENAK

a. Eginkizunak:

- i. Gaztetxokotik kanpo nahiz barruan egin beharreko programak edo jarduerak programatu, dinamizatu eta ebaluatzea.
- ii. Programak eta jarduerak egin aurreko txostenak egitea, bai eta haien balorazio txostenak ere.
- iii. Lan administratiboetan laguntzea: izen-emateak, laguntza, publizitatea...
- iv. Udalarekin eta Oinarrizko Gizarte Zerbitzuarekin koordinatzea.
- v. Taldearekin lokalean egotea, baita kalean edo beste eremu batzuetan egiten diren jardueretan ere.
- vi. Erabilitako lokalaren funtzionamenduari lotutako gaiak kudeatzea.
- vii. Instalazioak eta materiala zaintzea eta mantentzea, eta beharrezkotzat jotzen den guztia udalari jakinaraztea.
- viii. Lokala irekitzea eta ixtea ezarritako ordutegian, eta bertan egotea ezarritako ordutegian.
- ix. Eta lanpostuan aritzeko beharrezkotzat jotzen diren gainerako eginkizunak ere.

b. Honako hauek dira izangaiek eduki beharreko lanbide-trebetasunak:

- i. Instrumentalak:



1. Arazoak ebaztea eta erabakiak hartzea.
 2. Aztertze eta laburtze gaitasuna izatea.
 3. Informazioa kudeatzeko gaitasuna izatea.
 4. Komunikatzeko gaitasuna izatea.
 5. IKTk erabiltzen jakitea.
 6. Gaitasun kritikoa eta autokritikoa izatea.
 7. Aniztasuna eta kulturantzatasuna onartzea eta errespetatzea.
 8. Pertsonen arteko harremanetarako gaitasuna izatea (enpatia, asertibitatea, emozioen kudeaketa, etab.).
 9. Konpromiso etikoa.
 10. Heldutasun sozioafektiboa.
- ii. Sistemikoak:
1. Egoera berrietara egokitzeko gaitasuna.
 2. Sormena.
 3. Iniziatiba.
 4. Lidergoa.
- iii. Profesionalak:
1. 11 eta 15 urte bitartekoen ezaugarri psikoebolutiboak ezagutzea.
 2. Jarduketa programak eta estrategiak diseinatzea.
 3. Taldean eta beste profesional eta erakunde batzuekin lan egiteko gaitasuna izatea.
 4. Bitartekoak eta baliabideak sortzea.
 5. Gizarteratzea oztopatu dezaketen faktoreak antzematea eta jakinaraztea.

4. PROZEDURA

- a. Lakuntzako Udalak aldi baterako egiten dituen kontratazioetan zorrotz bermatu behar ditu berdintasun, meritu eta gaitasun printzipio konstituzionalak. Hori kontuan harturik eta 113/1985 Foru Dekretuaren 42. artikuluan ezarritakoa betetze aldera, hautaketa-prozesuan parte hartzeko eskabidea aurkeztu eta aurreko baldintzak betetzen dituzten langabeen eta lana hobetzeko inskribatutako pertsonen zerrenda eskatuko zaio Nafarroako Enplegu Zerbitzuari, hautaketa-prozesua gauzatzeko.
- b. Eskabideak egiteko instantzia-eredua erabiliko da eta harekin batera NANaren fotokopia, Batxilergoko titulua edo baliokidea eta euskara-titulua aurkeztu beharko dira, bai eta merituaren balorazioa egiaztatzeko egokitzat jotzen diren agiri guztiak ere (prestakuntza eta laneko esperientzia). Dokumentazio guztia Lakuntzako Udalaren erregistroan (Herriko Plaza 1, 1. solairua) aurkeztu beharko da, **2021eko urriaren 18ko 14:00ak baino lehen**. Ez dira kontuan hartuko egun horretarako aurkeztu ez diren meritu eta tituluek. Epe hori luzaezina da eta ez dira zuzenduko egiaztatu ez diren agiriak.

5. EPAIMAHAI KALIFIKATZAILEA.

- a. Kide hauek osatuko dute epaimahaia:
- i. Lehendakari: Lakuntzako Udaleko alkateak. Ordezkoa: Noren eskutan uzten duen, huraxek.
 - ii. 1. bokala: Etxarri Aranatz aldeko Gizarte Zerbitzuetako gizarte-langileak. Ordezkoa: Noren eskutan uzten duen, huraxek.
 - iii. 2. bokala: Jarraipen-batzordeko ordezkari batek. Ordezkoa: Noren eskutan uzten duen, huraxek.



- iv. Mahaikide-idazkaria: Lakuntzako idazkariak. Ordezkoa: Noren eskutan uzten duen, huraxek.
- b. Epaimahaia eratu eta haren jarduketak balioa izateko, kide guztien erabateko gehiengoa bildurik izan beharko da.
- c. Deialdiko oinarriak ulertu eta aplikatzerakoan sortzen diren afera guztiak gehiengoz erabakiko ditu epaimahaiak. Puntuazioetan berdinketarik balego, lehendakariaren kalitatezko botoaren bidez erabakiko da.

6. PROBAK ETA MERITUAK

- a. Probak Lakuntzako udaletxean egingo dira.
- b. Egin beharreko probak:
 - i. **Euskara proba:** Baztergarria izango da. Ahozko C1 euskara-maila egiaztatu nahi duten izangaiek egin beharko dute proba hau, baldin eta maila hori egiaztatzen duen organismo ofizial batek egindako ziurtagiria ez badute. Duela urtebete baino gutxiago antzeko probarik gainditu dutenek ez dute proba berriro egin beharrik izango.
 - ii. **Proba teorikoa:** Lanpostuaren eginkizunekin lotutako memoria-proiektua aurkeztea, Udalak emango dituen irizpideen arabera.
 - iii. Proiektua aurkezteko epea: Astebete. Ariketak 35 puntu izango ditu gehienez.
 - iv. **Proba praktikoa.-** Epaimahaiak planteatutako kasu bat ahoz defendatzea.
 - v. Ariketak 45 puntu izango ditu gehienez.
 - vi. **Elkarrizketa pertsonala.-** 10 puntu izango ditu gehienez.
- c. Ariketak egiteko dei bakarra izango da. Haietara, izangai guztiek nortasun agiri nazionala aldean dutela azaldu beharko dute. Proben eguna eta ordua eskabidean adierazitako posta elektronikoen bidez jakinaraziko dira (I. eranskina).
- d. Bazterturik geldituko dira probetara aurkezten ez diren izangaiaik.
- e. Desgaitasunen bat duten pertsonen eskabidean hala eskatzen badute, probak egiteko denbora- eta baliabide-egokitzapenak ezarriko dira.
- f. Merituak: Meritu-fasean gehienez ere 10 puntu emango dira.

i. Lanpostuari lotutako prestakuntza-ikastaroak: (gehienez ere 10 puntu)

1. Aratutako prestakuntza: gehienez 6 puntu.

| | |
|--|---------|
| Unibertsitate-gradu hauetako bat izatea: Gizarte Hezkuntza, Psikologia, Psikopedagogia, Irakasle-ikasketak, Haur Hezkuntza, Gizarte Lanak. | 6 puntu |
| Gizarte Integrazioko goi mailako heziketa-zikloa, Animazio soziokulturala | 4 puntu |

2. Beste prestakuntza batzuk: gehienez 4 puntu.

| | |
|--|---------|
| Aisialdiko begiralea izateko ikastaroa | 4 puntu |
|--|---------|



| | |
|--|--|
| <p>Jarduerari lotutako prestakuntza:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Animazio soziokulturala. • Aisialdiko jarduerak eta kudeaketa. • Drogomenpekotasunaren prebentzioa. • Aukera- berdintasuna. • Ingurumen Hezkuntza. • Sexu-heziketa. • Kultura-artekotasuna. • Sare sozialen erabilera egokia. • Adingabeen arteko indarkeriak eta gatazkak konpontzea. • Argazkigintza, sare sozialak, eskulanak, antzerkigintza... • Boluntariora gazteekin. | <p>0,50 0,50 puntu , 50 orduko</p> |
|--|--|

- g. Guztirako puntuazioa ateratako puntuazio guztien batura da, hau da, probetan ateratakoa gehi egiaztatutako merituen.

7. EPAIMAHAIAREN PROPOSAMENA.


- a. Azken proba egin eta gero, epaimahaiak Administrazio eskatzaileari puntuazio altuena duen hautagaiaren aldeko proposamena egingo dio. Gainditu dutenen zerrenda egingo da, lortutako puntuazio handienetik txikienera ordenatuta, eta Udalaren iragarki-taulan argitaratuko da.
- b. Proposamena loteslea izango da administrazio eskatzailearentzat.
- c. Behar bezala justifikatutako ezinbesteko kasuetan izan ezik, hautatutako izangaia 5 eguneko apean kontratua sinatzera agertzen ez bada, ez da izendatua izango.
- d. Aurreko atalean aurreikusitako kasuan, lehendakaritzak gainditzen dutenen zerrendan, 7. atalean aipatzen den horretan, ondo-ondotik heldu den izangaiarekin beteko du lanpostua, eta harekin aurreko ataletan adierazi bezala jokatu da.

8. LAN-POLTSA.

- a. Probak gainditu dituztenen zerrenda II. Eranskinean ezarritakoari jarraikiz erabiliko da.

9. ERREKURTSOAK

- a. Deialdi honen aurka, nahiz bere oinarrien eta aplikazio egintzen aurka, errekurtsu hauetakoren bakoari aurkezten ahalko da:
 - i. Berraztertze errekurtsua, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean jakinarazi eta biharamunetik hasita.
 - ii. Administrazioarekiko auzi-errekurtsua, Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabetez, errekurritzen den egintza jakinarazi edo argitaratu eta biharamunetik aitzina.
 - iii. Gora jotzeko errekurtsua, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, errekurritutako egintza edo erabakia argitaratu edo jakinarazten denetik aitzina.



II. ERANSKINA

LAN-POLTSARAKO ARAUAK: JAKINARAZPENETARAKO IRIZPIDEAK

1. Gaztetxokoko monitorea izateko oposizioa gainditzen duten izangaiekin lan-poltsa sortuko da etorkizunean ordezkapenak bideratu ahal izateko, Udalak monitorea baten beharra badu.
2. Lanaldia zerbitzuaren beharretara egokituko da, eta administrazio organo eskudunek noiznahi aldatu ahalko dute.
3. Puntuazio ordenaren arabera egingo dira beti ere deiak, ondoko paragrafoetan ezarritakoari kalterik egin gabe.
4. Telefonoz, posta elektronikoz edo interesdunarekin komunikazio azkarra eta arina ahalbidetzen duen beste edozein bitartekoren bidez egingo dira jakinarazpenak.
5. Udalak bi jakinarazpen- edo abisu-saio egingo ditu bi eguneko epean. Kontuan harturiko lan-poltsan dagoen pertsonak gehienez ere 24 orduko epean onartu edo gaitzetsiko du eskaintza. Ezin izan bada harekin harremanetan jarri, edo eskaintza ez balitz onartuko, puntuazio ordenaren arabera zerrendan dagoen hurrengoari egingo zaio eskaintza.
6. Justifikaziorako eta kontsultarako, hala behar badu, indarrean dauden lan-poltsen erregistro xehea eramango da, eta baita hautagaiekin harremanetan jartzeko eginiko saio edo/eta tramiteen erregistroa ere, hala behar izanez gero, horien aldetik jasotako erantzunez gainera.
7. Lan-poltsako kide batek behin lanean hasi ondoren lana utziko balu, lan-poltsatik kanpo geratuko litzateke. 15 egun lehenago lana utziko duela jakinaraziko balu, lan-poltsatik kanpo 5 hilabetez geratuko litzateke besterik ez.
8. Gizarte Segurantzako mediku batek eritasunez edota istripuz aldi baterako lan ezintasuna ziurtatuko balu deitutako hautagaia ez da lan-poltsatik baztertuko.
9. Lan-poltsa hau indarrean egongo da helburu bera izango duen beste lan-poltsa bat eratu bitartean.





Cód. Validación: 746A573ZDDWLTXFJJPXR3E7 | Verificación: <https://lakuunza.egaitzaelektronikoa.eus/>
Documento firmado electrónicamente desde la plataforma esPublico Gestiona | Página 6 de 8